

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Aguraingo Udaleko etxebizitza eskatzaileen udal erregistroaren araudiaren behin betiko onespena

Jendaurrean egoteko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, Aguraingo udalbatzaren 2024ko abenduaren 19ko erabakia behin betiko bihurtu da automatikoki. Erabaki horren bidez, hasierako onspena eman zitzaien Aguraingo Udalaren etxebizitza eskatzaileen udal erregistroaren araudiari, eta haren testu osoa argitara ematen da, guztiek jakin dezaten eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

#### Etxebizitza eskatzaileen udal erregistroaren araudia

##### 1. Izaera eta xedea

Aguraingo etxebizitza eskatzaileen udal erregistroa titulartasun publikoko erregistroa da, doakoa, administrazio izaera duena, alkatetza edo organo delegatuaren mendekoa. Hor, Aguraingo etxebizitza eskatzaileen pertsona fisikoak edo bizikidetzak unitateak inskribatzen dira, etxebizitza jabetzan edo alokairuan adjudikatzeko prozesuetan parte hartzeko. Eskatzen diren baldintzak BOEk lortzeko, zuzkidura bizilekuak eskuratzeko eta etxebizitza eskatzaileen borondatezko inskripzioa egiteko eskatzen direnen parekoak dira, etxebizitza sustatzaileei informazioa emateko helburuarekin.

##### 2. Eginkizunak

Hauek dira etxebizitza eskatzaileen erregistroaren eginkizunak:

a) Etxebizitza eskatzaileen pertsona fisikoak edo bizikidetzak unitateak erregistratzea, baldin eta babes ofizialeko etxebizitzak, zuzkidura bizitokiak eta horien pareko etxebizitzak erosketara araubidean zein alokairu araubidean eskuratzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

b) Udal etxebizitzak kudeatzeko eta adjudikatzeko beharrezko diren datuak ematea, baldin eta horiek eskuratzeko babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko pareko baldintzak eskatzen badira.

c) Administrazioari informazio eguneratua ematea, etxebizitzaren arloko jarduketak kontrolatu eta jarraitu ahal izateko.

d) Babes ofizialeko etxebizitzak edo sustapen pribatukoaren pareko etxebizitzak eskuratzeko benetako eskaria ezagutzeko balio duten datuak biltzea, tratatzea, kudeatzea eta eskaintzea.

##### 3. Datuen babesa

1. Etxebizitza eskatzaileen erregistroak etxebizitza eskatzaileen eta bizikidetzak unitateetako kideen nortasun datuak jasoko ditu. Datu horiek datu pertsonalen babesari buruzko 3/2018 Lege Organikoaren eta 2016/679 Erregelamenduaren (DBEO) arabera tratatuko dira.

2. Eskaera egiten denean, informazio hau emango zaie interesdunei:

- Tratamenduaren arduraduna nor den eta harremanetan jartzeko datuak.
- Tratamenduaren helburua eta haren oinarri juridikoa.

- Datuen hartzaileak.
- Datuak gordetzeko epea.
- Zer eskubide dituzten (ikustea, zuzentzea, kentzea, mugatzea, eramangarritasuna eta aurka egitea).

– Kontrol agintari baten aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea.

– Eskatutako informazioaren nahitaezkotasuna edo hautazkotasuna.

3. Datuekin honela jokatu da:

– Modu zilegi, leial eta gardenean tratatuko dira.

– Helburu zehatz, esplizitu eta bidezkoetarako jasoko dira.

– Beharrezkora egokituak eta mugatuak izango dira.

– Zehatzak eta eguneratuak.

– Ez dira gordeko behar baino denbora luzeagoan.

– Haien segurtasuna bermatzeko moduan tratatuko dira.

4. Beharrezko neurri teknikoak zein antolaketa neurriak hartuko dira datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko eta aldatzea, galtzea, edo baimenik gabe tratatzea edo ikustea saihesteko.

5. Tratamendu jardueren erregistroan gordeko du informazio hori udalak, DBEOren 30. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### **4. BOEn pareko baldintzak dituzten etxebizitzak inskribatzea**

1.– Pertsona fisikoak edo bizikidetzak unitateak etxebizitza eskatzaileen erregistroan inskriba daitezke erosketa edo alokairu araubideko etxebizitza eskatzaile gisa, baldin eta eskaera egiten duten egunean indarreko araudian etxebizitza horiek eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

2.– Alokairu araubidean inskribatzeko, etxebizitza izateko beharrezko baldintzak, Euskal Autonomia Erkidegoan jabetzako, azalera eskubideko edo gozameneko etxebizitzarik ez izatea ekarriko du.

3.– Alokairu araubidean babes ofizialeko etxebizitza bat, zuzkidura bizitoki bat edo parekatutako etxebizitza bat duten pertsonak edo bizikidetzak unitateak araubide berean edo erosketa araubidean bakarrik inskribatu ahalko dira, kontratua amaitu aurreko sei hilabeteetan.

4.– Ezingo dira inskribatu hori egiteko aldi baterako debekua duten pertsonak edo bizikidetzak unitateak, haren horren indarraldia amaitu arte.

#### **5. Etxebizitza premiaren baldintzaren salbuespenak**

1.– Etxebizitza premiaren baldintzatik salbuetsita daude indarreko araudian ezarritako gainerako baldintzak betetzeaz gain, aurreko bi urteetan Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako etxebizitza baten jabetzaren, jabetza soilaren, azalera eskubidearen edo gozamenaren edozein ehunekoren titular ere izan diren pertsonak, betiere beren ohiko etxebizitza iraunkorra izan bada, eta inguruabar hauetako batean badaude:

a) Indarreko araudiak ezarritako gutxienezko bizigarritasun baldintzak ez betetzea.

b) Banantze, dibortzio edo izateko bikoteak desegiteko prozesu baten ondoren, beste ezkontidearen familia etxebizitza gisa judizialki adjudikatzea.

c) Judizialki edo notarioaren bidez odol ahaidetasun edo ezkontza ahaidetasunezko hirugarren mailarainoko ahaidetasunik ez duen pertsona bati adjudikatzea, bat-batean sortutako ordaintzeko ezintasun baten ondorioz, hipoteka betearazpen bat ezarri ondoren.

- d) Indarren araudian ezarritako irisgarritasun baldintzak ez betetzea.
- e) Pertsonako 15 metro karratu baino gutxiagoko azalera erabilgarria izatea.
- f) Indarreko araudiak ezarritako irisgarritasun baldintzak betetzen ez dituen eraikin batean biziitzea.

#### **6. Sustatzaile pribatuei informazioa emateko inskribatzea**

Aguraingo etxebizitza eskatzaileen udal erregistroan izena ere eman dezakete, erosketa zein alokairu araubidean, BOEk eskuratzeko antzeko baldintzak bete behar dituzten etxebizitzak eskuratzeko baldintzak bete ez arren, bere datuak Aguraingo etxebizitza sustatzaile partikularrei ematea nahi duten pertsonak, baldin eta horrek konpromiso berezirik ez badu ekartzen.

#### **7. Eskaera orria**

Etxebizitza eskatzaileen erregistroan inskribatzeko etxebizitza eskaera egiteko, I. eranskinean jasotzen den eskaera orri ofiziala aurkeztu beharko da, eta bizikidetzaren unitateko kide guztiek sinatu beharko dute.

#### **8. Inskripzioan baja emateko arrazoiak**

Aguraingo etxebizitza eskatzaileen udal erregistroan inskribatutako eskaerei baja emateko arrazoiak izango dira:

- a) Eskatzaileak edo titular guztiek egindako eskaera.
- b) Eskatzailearen, edo eskaeraren titular den edozein pertsonaren heriotza edo bizikidetzaren unitateko atzeratzea, horren ondorioz, inskripzioak jarraitzeko baldintzak ez badira betetzen.
- c) Inskripzioaren indarraldia berariaz berritu gabe amaitu bada.
- d) Administrazioak eskatzaileei berariaz eskatutako dokumentazioa epe barruan ez badute aurkeztu.
- e) Pertsona edo bizikidetzaren unitate eskatzaileari etxebizitza bat adjudikatzea.
- f) Eskatzaileak etxebizitza salerosketa kontratu pribatu bat sinatzea.
- g) Partikularren artean babes ofizialeko etxebizitza baten alokairu kontratua sinatzea.
- h) Eskatutako sarrera araubidean, bizikidetzaren unitatearen bizitegi beharretara egokitutako etxebizitza baten adjudikazioari uko egitea, baldin eta erosketa araubidean bada, eta eskaera egiten duena edo eskaeraren edozein titular langabezia egoeran ez badaude.
- i) Inskripzioa ezeztatzea, arrazoi hauetako batengatik:
  - 1.– Eskaeran edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioan, edo administrazioak eskatutako, emandako datuak zehatzak ez direla, faltsuak direla edo omisioak egin direla egiaztatzea, egon daitezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak gorabehera.
  - 2.– Inskripzioa egiteko beharrezkoak diren baldintzek ekarritako ez betetzea.

#### **9. Inskripzioaren bajaren ondorioak**

- 1. Etxebizitza eskatzaileen erregistroan baja emanez gero, antzintasuna galduko da.
- 2.– Halaber, epe hauetan debekatuta izango du inskribatzea:
  - a) Urtebete, inskripzioa ez badu berritu, eskatutako dokumentazioa ez badu aurkeztu eta baldintzek eragindako ez betetzearen ondorioz errebokatzen bada.
  - b) Bi urte, etxebizitza baten adjudikazioari uko egiten badiu, eta datuak zehatzak ez direla, faltsuak direla edo omisioak egiten dituela egiaztatzearen ondorioz errebokatzen bada.

## 10. Eskaera aurkezteko modua

1.– Eskaerak eredu ofizialak erabiliz aurkeztuko dira. Horiek, udal bulegoetan eta webgunean ([www.agurain.eus](http://www.agurain.eus)) eskura daitezke.

2.– Eskatzaileek nahi duten hizkuntza ofizialean aurkez dezakete eskaera. Halaber, eskaerak eskatutako jarduketetan, eta prozeduran zehar, eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Aguraingo hizkuntza normalizaziorako planean ezartzen den moduan.

3.– Eskaera urriaren 1eko 39/2015 Legean, administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoan, 38.4. Artikuluan, ezarritako tokietan aurkez daiteke; baita Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren egoitza elektronikoan ere, baliabide elektronikoaren bidez.

4.– Eskaera egitean baliabide elektroniko, informatiko edo telematikoak erabiltzeak ez du ekarriko prozeduraren geroko izapideetan ere erabili behar izatea.

## 11. Eskaeraren ondorioak

1. Berriazko ebazpenik egon ezean, eskaera aurkezteak Aguraingo etxebizitza eskatzaileen udal erregistroan inskribatzea ekarriko du.

2. Eskaera aurkezteko, bizikidetzaren unitatea osatzen duten adin nagusiko guztien berriazko idatzizko baimena beharko da, honetarako:

- Datu pertsonalak tratatzeko.
- Beste administrazio batzuen datuak kontsultatzeko eta eskuratzeko.
- Datuak hirugarrenei lagatzeko, beharrezkoa denean.
- Datuak bildu eta tratatzen diren berriazko helburua.

3. Udalak honako hauei bakarrik lagako die datu pertsonalak:

- Beste administrazio publiko batzuei, legezko betebeharra badago.
- Etxebizitza sustatzaileei, berriazko baimena badago.
- Ebazpen judizialak legezkotutako hirugarrenei.
- Legez ezarritako beste hartzaile batzuei.

4. Erregistroan inskribatzeak Aguraingo Udalak egiten dituen etxebizitzaren adjudikazio prozesu guztietan frogagiriak aurkezteko beharra ekarriko du.

## 12. Segurtasun neurriak

Udalak segurtasun maila egokia bermatzeko beharrezkoak diren neurri tekniko eta antolaketa neurriak ezarriko ditu. Maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuak, Udalaren administrazio elektronikoaren eta segurtasun politikaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duenak, ezarritako "segurtasun neurriak aplikatuko ditu.

### Aguraingo etxebizitza eskatzaileen udal erregistroan inskribatzeko eskaera

..... Jauna/andrea, NAN:.....,  
jaioteguna:.....eta helbidea hemen izanda:..... PK.....,  
.....kalea/plaza, zenb:..... solairua:.....

Telefonoa:..... Helbide elektronikoa: .....

Adierazten du: Ezagutzen duela Aguraingo etxebizitza eskatzaileen udal erregistroan inskribatzea arautzen duen araudia, osorik onartzen duela, eta aipatutako erregistroan inskribatu nahi duela.

Xede horretarako aitortzen du (dagozkion puntuak adierazi):

- Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dagoela, data honetatik:.....
- Mugikortasun urriko pertsona dela.
- Ez duela etxebizitzarik jabetzan, eta ez dela etxebizitzaren bat erabiltzeko edo gozamenean izateko inongo eskubide errealen titularra.
- Ez dela beste etxebizitza baten jabe izan eskaera egin aurreko bi urteetan (edo agirien bidez egiaztatzen dudala ohiko etxebizitza iraunkor gisa erabiltzeko ezintasuna, edo ohiko etxebizitza izanda, berariaz dakidala babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko laguntzarik ezin dudala jaso).
- Jabetzako etxebizitza duen arren, ez dituela betetzen irisgarritasun baldintzak.
- Eusko Jaurlaritzak etxebizitza erosteko ematen dituen finantza neurrien onuraduna ez dela izan eskaera egin aurreko 10 urteetan.

– Hauek direla bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonak:

Bizikidetza unitatea osatzen duten pertsonen zerrenda:

Izen-abizenak: .....

NAN: .....

Jaioteguna: .....

Ahaidetasuna: .....

Izen-abizenak: .....

NAN: .....

Jaioteguna: .....

Ahaidetasuna: .....

Izen-abizenak: .....

NAN: .....

Jaioteguna: .....

Ahaidetasuna: .....

Izen-abizenak: .....

NAN: .....

Jaioteguna: .....

Ahaidetasuna: .....

Izen-abizenak: .....

NAN: .....

Jaioteguna: .....

Ahaidetasuna: .....

## Autorizazioak eta baimenak

- Baimena ematen diot Aguraingo Udalarari eskaera hau izapidetzeko beharrezkoak diren datuak beste administrazio batzuetatik lortzeko eta egiaztatzeko (izen-abizenak, bizilekua, ondare higiezia, zerga datuak).
- Baimena ematen dut berariaz nire datuak Aguraingo etxebizitza sustatzaileei lagatzeko, beren sustapenen informazioa jaso dezadan.
- Erantzukizunez adierazten dut ematen ditudan datuak egiazkoak direla, eta gezurrezko informazioa emateak penalizazioak eta Aguraingo etxebizitza eskatzaileen udal erregistrotik kanporatzea ekar dezakeela.

## Datuen babesa

Datu pertsonalen babesari buruzko indarreko araudian ezarritakoaren arabera, honako hau jakinarazten dizugu:

Tratamenduaren arduraduna:

Aguraingo Udala

IFK: P0105700I

Helbidea: Zapatarri kalea, 12, PK: 01200, Araba.

Helburua: Etxebizitza eskatzaileen udal erregistroan inskribatzeko eskaerak kudeatzea, baita adjudikazio prozesuak ere.

## Legitimazioaren oinarri juridikoa

DBEOren 6.1.e) artikulua: interes publikoko misio bat betetzea.

DBEOren 6.1.a) artikulua: interesdunaren baimen helburu jakin baterako edo batzuetarako. 3/2015 Legea, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena.

39/2008 Dekretua, martxoaren 4koa, babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza neurriei buruzkoa.

Hartzaileak: Datuak honako hauei jakinaraz dakieke:

Etxebizitzaren arloan eskumena duten administrazio publikoei.

Etxebizitza sustatzaileei (haien berariazko baimenarekin bakarrik).

Beste hirugarren batzuei, legezko betebeharra badago.

Datuak gordetzea: Aguraingo Udalak datu pertsonalak gordeko ditu indarreko legediari, administrazio arauari eta aplikatzeko diren betebeharrak jarraituz.

Bildutako datuak aurretik adierazitako helburua zuzen betetzeko beharrezkoak direnak bakarrik izango dira. Horrela, datu horiek eman ezean, udalak ezingo du bermatu inskribatzea zuzen kudeatuko denik etxebizitza eskatzaileen udal erregistroan.

Eskubideak: Datuak ikusteko, zuzentzeko, kentzeko, mugatzeko, eramateko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzake, datuen babesarako ordezkariekin harremanetan jarritz, helbide honetan: [dpdcuadrillaalavesa@unive.es](mailto:dpdcuadrillaalavesa@unive.es).

Informazio gehigarria: Zure datuen tratamenduari buruzko informazio zehatza kontsulta dezakezu udalaren pribatasun politiketan: <https://agurain.eus/es/politica-privacidad>.

Tokia, data eta eskatzaile guztien sinadura

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Horretarako bi hilabeteko epea izango da, erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, bat etorri Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin.

Administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri aurretik, berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango da, erabaki hau hartu duen organoari zuzendua. Horretarako hilabeteko epea izango da erabakia argitaratu eta bihamunetik hasita.

Horrez gain, bidezkoztat jotzen den beste edozein errekurtsu aurkeztu ahal izango da.

Agurainen, 2025eko martxoaren 17an

*Alkatea*

**RAÚL LÓPEZ DE URALDE BALTASAR**